

Lankide agurgarria:

Euskararen aldeko indar eta ilusio kolektibo berri bat piztu du Euskaraldiak aurreko bi edizioetan. 2020an, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundian 1.141 langileren parte hartzeaz gain, 190 arigune ere sortu genituen. Oso positiboak izan ziren sortu ziren dinamikak eta hainbat langileren artean egonkortu egin ziren hizkuntza ohitura berriak.

Hitzez ekiteko garaia, horixe da 2022ko Euskaraldiaren leloa. Ohi bezala, berrikuntzak ere izango dira; azaroaren 18tik abenduaren 2ra, aurrera pauso linguistikoak emateko tresnak eskainiko dizkigu ariketa sozial honek. Aurrera pauso horiek emateko eta egonkortzeko aukera izango dugu Foru Aldundian.

Hori dela eta, Euskaraldian parte hartzeko gonbidapen hau gogotsu hartzera animatu nahi zaitut.

Erronkak: aurrera pausoak emateko tresnak

2022ko Euskaraldiaren berrikuntza nagusia erronkak izango dira. Guztioi euskararekin lotutako erronkak hartzea proposatuko digute eta, taldean nahiz bakarka, euskararen aldeko urratsak esplizitatzea, adostea eta gauzatzea izango da asmoa.

Ohi bezala, ariguneari identifikatuko ditugu, Ahobizi eta Belarriprest modura ere arituko gara, eta horri guztiari gehituko zaizkio erronkak. Beraz, hizkuntza ohituretan eragiteko tresna sendoak izango ditugu eta bakoitzak bere neurrira egokitu ahal izango du egitasmoa.

Aldundiaren antolaketa

Aste honetako gobernu kontseiluan diputatuekin partekatu dudana determinazioa helarazi nahi dizut: Foru Aldundiko departamentu guztiok Euskaraldian modu aktiboan parte hartzeko gonbitea. Helburu hori, baina, langile eta ordezkari guztiok partekatu beharreko asmoa da. Ezinbestekoa da arduradun politikoak eta langileak, libreki baina konpromisoak hartuz, aktibatzea eta inplikatzeko. Horregatik luzatzen dizut honako mezu hau.

Dagoeneko Aldundian hasi gara Euskaraldia antolatzen eta berau artikulatzeko pausoak diseinatzen ari gara. Koordinazioa Hizkuntza Berdintasueko Zuzendaritzak bere gain hartuko duen arren, eraginkortasuna jarri nahi dugu erdigunean eta, horretarako, departamentuen ekimena ere bultzatuko dugu.

Urrats nagusi hauek aurreikusi ditugu:

1. Departamentu bakoitzak Euskaraldia antolatzeko bere talde eragilea sortu.
2. Ariguneari identifikatu eta langileen adostasuna lortu.
3. Ariguneari aktibatu eta erronkak zehaztu.
4. Prestakuntza saioak antolatu.
5. Hamabost eguneko ariketa egin, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra.
6. Balorazioa egin eta hizkuntza ohitura berriak egonkortzeko mekanismoak aztertu.

Hitzez ekinez

Datorren Euskaraldian, guztion artean, lortu dezakegu parte hartzea eta inplikazioa handiak izatea, Euskaraldiarekin lotutako lorpen eta bizipenak positiboak izatea eta, batez ere,

Euskaraldiak irauten duen 15 egun horietatik haratago, lortutako aurrerapausoek denbora zehar ere iraunaraztea.

Besterik gabe, Euskaraldian aktiboki parte hartzera animatu nahi zaitut. Guztiok batera hitzez ekinez, ingurukoekin eta gainontzeko departamentuekin elkarlana estutu eta hobetzeko abagune aparta izango da ariketa kolektibo hau.

Markel Olano Arrese

Diputatu nagusia